

## Txakurrari gauean gertatutako istripu bitxia



### ***Txakurrari gauean gertatutako istripu bitxia***

Jatorrizko izenburua: *The Curious Incident of the Dog in the Nighth-time*

Egilea: Mark Haddon

Itzultzailea: Xabier Olarra

Argitaratze urtea: 2006

Argitaletxea: Igela

### MIKEL GARMENDIA

Lagunartean azken boladan irakurritako liburuez aritu naizen bakoitzean adjektibo bera entzun izan dut denen ahotan: bitxia. Hala bataiatu du Haddon egileak berak ere istorio honetako txakurrari gertatutako istripua. Zergatik da, ordea, bitxia?

Batetik, protagonista nagusia, Christopher, hamabost urteko mutiko bat da, Ausperger sindromeak joa (autista), matematiken eta detektibe-eleberrien zale amorratua. Christopherrek auzoaren txakurra hilik aurkituko du eta hiltzailearen bila hasiko da. Hariari tiraka egundokoak eta bi deskubrituko ditu. Horra, beraz, trama planteatua, detektibe eta guzti. Zer du, ordea, bitxitik? Istorioa Christopherrek kontatuko digu eta, jakina, bere modura kontatzen du, berak mundua ikusten duen ikuspegitik, alegia. Den-dena ikusten omen du Christopherrek eta hori oso latza da; hala sentiarazten digu istorioan barneratu ahala. Den-dena ikusten du, bai, ez dio xehetasun batek ere ihes egiten eta horrek eginarazten dion ahaleginak lur-jota utziko du maiz. Metaforak, ironia eta umorea, berriz, ezin omen ditu ulertu. Eta horretantxe datza, nik uste, bitxitasunik handiena. Batetik, bere logika linealaren inozotasuna bera ironia bilakatzen da irakurlearentzat. Nik ez dakit zenbateraino jabetzen den horretaz Christopher. Baina, bestetik, umorerik, ironiarik gabe bizitzak gatz eta piper guztia galtzen duela uste genuenontzat, hara non azaltzen zaigun, ezustean, Christopherren ihesbidea: errealitatea azken muturreraino ezagutzeak, jakintza erabatekoak, hamaika beldur eta kezka uxatzen eta erlatibizatzen laguntzen duela erakutsiko digu Christopherrek. Txundituta kontatzen digu nola guk ikusten ditugun izar batzuk jadanik ez direla existitzen, zeren haien argiak hainbeste denbora behar du gugana iristeko, guk ikusten ditugunerako hilak baitaude. Horra zer dioten horren aurrean: "Horrek oso ttiki sentiarazten zaitu, eta bizitzan zailtasunak baldin badituzu, atsegina da pentsatzea arazo horiek *hutsalak* esaten zaienetakoak direla, zeinak esan nahi baitu, hain txikiak direla, non ez baitira kontuan hartu behar, zerbait kalkulatzeko ari zarenean".

Eta hala erakutsiko digu zenbat eta zenbat alferrikako beldur eta kezkez inguratuak bizi garen, helduok batez ere.

Tarteka nekagarri samarra ere gertatzen dira Christopherren arrazoiketa luze eta linealak, beti gauzak azkeneraino xehatu nahi horretan. Alde horretatik, bikaina da X. Olarra itzultzaileak egindako bertsioa, zeren kasu honetan, hizkera hiperlogiko hori islatzeko ez baitago euskara ahalik eta "natural"enera jotzerik, horrek kendu egingo bailioke bere xarma Christopherren espresatzeko moduari. Hala, bete-betean asmatu du "zeina bait" gisako moldeak aukeratzean.

Azken finean, liburu honek, beste gauza askoren artean, zalantza eginarazten digu: ez ote ihes egitea baino hobea errealitateari aurrez aurre begiratu eta bertan buru-belarri murgiltzea? Zein bidaia da interesgarriagoa: uharte exotiko batzuetara joatea ala etxetik mugitu gabe mikroskopio baten bitartez egin dezakeguna?

Horrelakoak pentsaraziko dizkizu ziurrenik liburu honek.